

FUTBOLEKO BERARIAZKO ARAUAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren izena.

FUTBOL 11, FUTBOL 8 / FUTBOL 7 ETA ARETO FUTBOLA

2. Kirol diziplinaren lehiaketako jardueren joko-arauak.

EZ DAGO ARAU ALDAKETARIK; OHITURAK BAINO

3. Kirol federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduketa-arauak.

Partidak jokatu dituzten jokalariek eta teknikari-taldea bakarrik joango dira.

Aldagelak erabiliz gero, partidaren hasieran parte-hartzaileak aldatu beharko dira (titularrak edo hasierako lerrokadura), eta behin jokalekura ateratzen direnean ordezkioak aldatuko dira, betiere instalazioaren titularrak ezarritako gehieneko edukiera errespetatuz, aldagelen neurrietan oinarrituta. (Komenigarria litzateke gehieneko edukiera adieraztera behartzea).

Taldeak eta teknikariak ordenan atera eta sartuko dira zelaira, distantzia fisikoa mantenduz.

Tokiko erakundeko arduradunak bakarrik desinfektatuko du erabiltzen den materiala (baloiak nagusiki), jarduera hasi aurretik, jarduera egiten den bitartean eta jarduera amaitutakoan.

Ospakizunak (golak eta abar) eta agurra saihestuko dira parte-hartzaileen artean.

Lehiaketaren berezko beste keinu batzuk saihestea (izerdia eskuekin garbitzea, karkaxak eta abar).

Teknikari guztiek maskara erabili beharko dute, eta distantzia fisikoa mantendu.

Atsedendian, eta eguraldiak uzten badu, hizketaldiak zelaian bertan edo harmailetan egingo dira, aldageletara joan behar izan gabe.

Parte-hartzaile guztiek maskara jarrita joan beharko dute, eta etxeko taldeko arduradun batek tenperatura kontrolatuko dei bai klubei, heldutakoan, bai arbitro-taldeari, lehiaketa egunetan. Kanpoko taldearen kasuan, kanpoko taldearen arduradun bat aurrean dela hartuko da tenperatura.

- Materiala jarduera garatzen den bitartean desinfektatu beharko da (baloiak, kornereko banderak, botika-kutxa eta abar).
- Aulkien eremua desinfektatuta edo zigilatuta egongo da beroketa egiten hasi arte. Instalazioak uzten badu, aulkien tamaina handituko da, betiere teknikarien eta ordezko jokalarien artean distantzia fisikoa utziz, aulki gehiago jarritz edo harmailak ere erabiliz. Aulkian maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, arau orokorretan jasota dagoen bezala.
- Partida amaitutakoan, zelaian jendea pilatzea saihestuko da, eta talde parte-hartzaileen artean ordena eta distantzia fisikoa mantenduz utzi beharko da.
- Instalazio berean jokatzen diren partidaren artean uzten den denbora luzatu beharko da, bi partidetan etxeko talde gisa aritzen diren taldeek, erabilitako materiala eta aldagelak desinfektatzen eta garbitzen lagun dezaten, betiere Udalak, instalazioetan jabe gisa, adierazten dituen arau, gomendio edo betebeharrei jarraituz.

Erakunde parte-hartzaileek arduradun bat izendatu beharko dute, klubak entrenamenduak egiten dituen eta lehiaketa federatuetan etxeko talde gisa aritzen den instalazio bakoitzean betebeharrak eta gomendio sanitario guztiak bete daitezela.

4. Parte hartzen duten erakundeek garatzen dituzten entrenamendu eta saioetarako jarduketa-arauak.

Entrenamendu-egunetan talde bakoitzaren arduradunak hartuko du tenperatura, eta eskuak garbitzeaz arduratuko da.

Lehiaketarako arauetan eta arau orokorretan jasotzen den moduan, erakundeko arduradunak aurretik adierazitako guztia bete beharko du entrenamenduetan, eta saioak horretan oinarrituz antolatu beharko ditu, batik bat tenperatura hartzeari, eskuak garbitzeari, materiala desinfektatzeari, jantzien erabilerari eta norberaren ur botilatxoei dagokienez. Ahal bada, parte-hartzaileko baloi bat izango da.